



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

EUKALIPTORAKO 2025ERA ARTEKO MORATORIA JASOTEN DAUEN FORU ARAUAREN PROIEKTUA AZALDU DAU ALDUNDIAK BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Amaia Antxustegi Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak agerraldia egin dau, espezie horren hedapena geldiarazoko dauen Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko Foru Arauan sartutako aldaketa nagusiak zehazteko.**
- **Testuak, arauzko proiektuaren eukia aldatuko ez daben norbanakoen eta alkarteen 9 alegazino jaso ditu.**

(Bilbon, 2022ko zezeilaren 17an). Aldundiak gaur aurkeztu deutse taldeei Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako batzordean laster Bizkaiko parlamentuan eztabaidatuko dan Foru Arauaren aurreproiektuaren eukia. Bertan, Eucalyptus generoko espezieen landaketa barriari jagokenez aldi baterako (2025. urtera arte) moratoria txertatzea planteetan da, “ingurumena, ekonomia eta gizartea orekatzeko eta jagokon araudia egokitzeko beharrezkoak diran baso-antolamenduko tresnak onartzen diran bitartean”, horreen artean Mendien inguruko Foru Arau barria.

Amaia Antxustegi Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak azaldu dauenez, Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauaren aldaketea, Aurretik egindako Kontsulta Publiko prozesuaren ostean egin da. Prozesu horretan sektoreko hainbat erakundek, ekoizlek, ingurumen-kolektibok, komunitate zientifikoak eta teknikariek eta norbanakoek hartu dabe parte, eta horreen guztien eta herritarren eretxiak jaso dira. Azkenik, testuak norbanakoek edo sektoreko edo ingurumen arloko alkarteek aurkeztutako 9 alegazino jaso ditu. Alegazino horreek ez dabe proiektua aldatzeko balioko, hori arautzeko “interesgarriak” izan arren, diputatuak ohartarazo dauenez.

Arau-aldaketak pinuaren banda marroia gaixotasunak areagotu dauen espezie horren zabalkundea geldiarazo gura dau; izan be, horren kontra dagozanen berbetan, “ingurumenerako kaltegarri izan daitekezan ondorioak” ditu. Bizkaian, 2020an Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Sailari eskatutako birpopulatzebaimenen % 60 baino gehiago espezie horretakoak izan ziran. 2020an Euskal Autonomia Erkidegorako egindako Baso Maparen arabera, hazkunde bizkorreko



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

konifera horrek 20.506 hektarea hartzen ditu, guztizkoaren % 15,6. Bizkaiko baso-azalera 131.676 hektareakoa izan zan; horreetatik 58.257 hostozabalei jagokezan, eta ganerako 73.419 hektareak konifero-bariedadeei. Baso-azaleraren % 76 esku pribaduetan dago.

Datu horreek emon ostean, diputatuak adierazo dau arau-aldaketea xedapen barri baten bidez egituratzen dala. Xedapen horrek adierazoten dau 2025eko abenduaren 31ra arte, landaketa horreek “baso-barritzearen xede dan lursailaren aurreko okupazioak, modu nagusian –% 50 baino gehiago– mota horretako masa purua edo mistoa izan dauenean bakarrik baimenduko dirala, beti be aurreko landaketak indarrean dagoan legeria sektorialean xedatutakoa errespetauta egin badira”. Edozelan be, ez da onartuko eukaliptoaren bidez barriro landatuko dan azalerak aurretik espezie horregaz landatutako azalera gaintitzea, baina araua indarrean sartu aurretik baimendutakoak, hau da, argitaratu eta egun batera artekoak, onartuko dira.

Batzar Nagusietako taldeek eretxi desbardinakaz jaso dabe aurreproiektua. Etxanobe batzordean agertzea eskatu daben talde biek, EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak, planteautako gai batzuei diputatuak erantzun ez izana deitoratu dabe: sektoreari konpentsazioak emoteko neurriak, moratoria urteetan luzatzeko aukerea, horren errazoi “zehatzak”, espezie inbaditzaile moduan ez katalogau izana, lurzoru publikoen eta pribaduen arteko tratamendu desbardina edo 2025etik aurrerako etorkizuneko asmoak.

Gobernuari eusten deusien taldeek arau “on” bati buruz egin dabe berba, orain arte egindakoa “errespetetan dauelako” eta eukaliptoaren hedapena “geldituarazotearen” eta bertako espezieen azalera zabaltzearen alde egiten dauelako. Jesus Lekerikabeaskoa bozeroale jeltzaleak esan dauenez, moratoria ezarteko errazoi “nagusia” basoa kontrolpean izatea da “eskuetatik joan ez jakun”; izan be, basobarritzeko proposamenen % 60 baino gehiago eukaliptoa izan ziran. Moratoria beharrezkoa da, epaileek be espezie hori espezie inbaditzaile moduan definiduteko “ez dagoala oinarri zientifikorik” ebatzi dabelako.

ISURKETEA BARBADUN ERREKAN

Elkarrekin Bizkaiak eskatuta, urtarrilaren 17an Muskizko Barbadun errekan gertatu zan Petronorren findegiko isuria dala-eta be etorri da diputatua batzordera. Talde moreak hainbat galdera egin ditu gertatutakoa hobeto ezagutzeko. Hector Fernandez batzordekideak esan dauenez, hasiera batean enpresak “irisazio” moduan definidu eban gertatutakoa. Ahozko erantzun-eske baten bidez, Aldundiak hartutako neurriak azaldu daizala be eskatu deutso EH Bilduk.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Diputatuak azaldu dauenez, isuriak ez dau “ezelango kalterik” eragin uretako faunan, ezta Barbadungo paduretan dagozan hegaztietan be; beraz, “ez da beharrezkoa izan ingurumena lehengoratzeko ezelango lanik egitea”. Antxustegik ohartarazo dau “15 egunen buruan” sailak eragina jaso dauen lursailean hartutako azken laginen emoitzak izango dituala eta, konponketa-lanen bat egin ezkeru, enpresak hartu beharko dauela bere gain, Aldundiko teknikariek gainbegiratuta. Momentuz, bere sailak zehapen-espeditentea edegi deutso Petronorri. Enpresak, isurketaren egunean bertan erreakzionau eban. Emondako informazioaren arabera, lastozko hesiak jarri ebazan, eta “orio-orbanak” kamioi moto-bonba baten bidez xurgatu ebazan.

Beste alde batetik, talde moreak galdetu dau ea zergaitik ez dagoan ingurumenagaz eta naturguneen kontserbazinoagaz erlazonautako neurrik hondartzak kudeetako abenduan udalakaz sinatu zan hitzarmenean, baina diputatuak ukatu egin dau halangorik gertatzen danik. Diputatuaren berbetan, lurraldeko dozena bat udalakaz sinatu zan eta 2024. urtera arte indarrean egongo dan hitzarmenean babesa “bermatuta dago”.

Modu berean, Talde Berezia-PP Bizkaia taldeak Berango-Unbe errepidean (BI-3733), 23. eta 28. kilometroen artean, dagoan “kontrolau bako” zabortegia kentzeko eskatu dau. Zezeilaren 10ean, Foru Aldundiak ingurua ikuskatu ostean, teknikariek egiaztatu eben hondakin solidoak aurkitu ziran puntua Berangoko udalerriri jagokola, eta, beraz, udal hori zala hondakinak kendu eta beharrezko zigorrak ezartearen arduraduna. Etxanobek Aldundiak puntu zikin horreek saihesteko aktibetan dituan neurri “prebentiboak eta zuzentzaileak” gogorarazoteko aprobetxatu dau. Lehenengoak, herritarrak kontzientzietako kanpainen eta 23 garbiguneko sarearen bidez. Eta bigarrenak, udalerriek legez kanpoko isurketak saihestu daiezan laguntza ekonomikoen dekretuaren bidez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN EXPLICA EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA EL PROYECTO DE NORMA FORAL QUE INCLUYE UNA MORATORIA AL EUCALIPTO HASTA 2025

- La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, comparece para detallar las modificaciones principales incluidas en la Norma Foral de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos que frenará la expansión de esta especie.
- El texto ha recibido 9 alegaciones de particulares y asociaciones que no alterarán el contenido del proyecto de norma.

(Bilbao, a 17 de febrero de 2022). La Diputación ha presentado hoy a los grupos junteros en la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de las Juntas Generales de Bizkaia el contenido del anteproyecto de Norma Foral que será debatido próximamente en la Cámara y en el que se plantea incorporar de manera transitoria una moratoria hasta el año 2025 en las nuevas plantaciones de especies del género Eucalyptus, “en tanto en cuanto se aprueben los instrumentos de ordenación forestal necesarios para preservar un equilibrio medioambiental, económico y social y se adecúe la normativa correspondiente”, entre ellas, una nueva Norma Foral de Montes.

La modificación de la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos se ha realizado, según ha explicado la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Amaia Antxustegi, tras un proceso de Consulta Pública Previa, en el que han participado distintas organizaciones sectoriales, productores y productoras, colectivos ambientalistas, la comunidad científica y técnica y particulares, habiéndose recogido las distintas opiniones de todas ellas y de la ciudadanía. El texto ha recibido finalmente 9 alegaciones de particulares o de asociaciones del sector o ambientalistas, que no servirán para modificar el proyecto, si bien son “de interés” para su regulación, ha advertido la diputada.

El cambio normativo intenta poner freno a la extensión de esta especie, acrecentada por la enfermedad de la banda marrón en el pino, ya que según sus detractores incluye “potenciales consecuencias perjudiciales para el medio ambiente”. En Bizkaia, más del 60% de las autorizaciones de repoblación solicitadas al Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural en 2020, fueron de eucalipto. De conformidad con el Mapa Forestal elaborado para la Comunidad Autónoma del País Vasco en 2020, la superficie ocupada por esta conífera de crecimiento rápido es de 20.506 hectáreas, un



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

15,6% del total. La superficie forestal de Bizkaia se cuantificó en 131.676 hectáreas, de las cuales 58.257 correspondían a frondosas y las 73.419 hectáreas restantes a las diferentes variedades de coníferas. El 76% de la superficie forestal está en manos privadas.

Tras ofrecer estos datos, la diputada ha señalado que el cambio normativo se articula a través de una disposición nueva que señala que hasta el 31 de diciembre de 2025, estas plantaciones “únicamente estarán permitidas cuando la ocupación anterior del terreno objeto de la reforestación haya constituido una masa pura o mixta dominante – más del 50%- de este género, y siempre y cuando las plantaciones anteriores se hayan realizado respetando lo dispuesto en la legislación sectorial vigente.” En cualquier caso, no se permitirá que la superficie a repoblar con eucalipto supere la superficie anterior plantada con esta especie, si bien se permitirán las autorizadas antes de la entrada en vigor de la norma, es decir, hasta un día después de su publicación.

Los grupos junteros han recibido el anteproyecto con opiniones dispares. Los dos grupos que han pedido la comparecencia de Etxanobe en la comisión, EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, han lamentado que la diputada no haya respondido a algunas cuestiones planteadas: medidas compensatorias al sector, una posible ampliación -en años- de la moratoria, las razones “concretas” de la misma, su no catalogación como especie invasora, el tratamiento diferenciado entre suelos públicos y privados o las intenciones de futuro a partir de 2025.

Desde las filas de los grupos que sustentan al Gobierno se ha hablado de una “buena” norma, porque “respeta” lo hecho hasta ahora y apuesta por “frenar” la expansión del eucalipto y por extender la superficie de especies autóctonas. El portavoz jeltzale Jesús Lekerikabeaskoa ha dicho que el “principal” motivo para la moratoria es “tener el control” de la masa forestal, “para que no se nos vaya de las manos”, ya que más del 60% de las propuestas de repoblación fueron de eucalipto. La moratoria es necesaria jurídicamente también porque los jueces han sentenciado que “no hay base científica” para definir a este árbol como especie invasora.

VERTIDO EN EL BARBADÚN

La diputada ha comparecido también, a petición de Elkarrekin Bizkaia, por un vertido de la refinera de Petronor, producido el 17 de enero, en el río Barbadún, en Muskiz. El grupo morado ha lanzado una batería de preguntas para profundizar en el conocimiento de los hechos que, en un principio, la empresa definió como una “irrisación”, según ha explicado el apoderado Héctor Fernández. A través de una pregunta oral, EH Bildu solicitaba también que la Diputación concretara las medidas adoptadas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La diputada ha explicado que el vertido no ha supuesto “ningún daño” en la fauna acuática ni en las aves presentes en las marismas del Barbadún, por lo que “no ha sido necesario realizar ningún trabajo de recuperación ambiental”. Antxustegi ha advertido que “en 15 días” el departamento dispondrá de los resultados de las últimas muestras tomadas en el terreno afectado y que, de llevarse a cabo alguna actuación reparadora, ésta la tendría que asumir la empresa bajo supervisión de los técnicos de la Diputación. De momento, su departamento ha abierto un expediente sancionador a Petronor, empresa que reaccionó el mismo día del vertido, según la información ofrecida, colocando barreras de paja y succionando las “manchas oleaginosas” por medio de un camión motobomba.

Por otro lado, el grupo morado ha preguntado también por la no existencia de medidas relacionadas con el medio ambiente y la conservación de espacios naturales en el convenio firmado en diciembre con los Ayuntamientos para la gestión de las playas, aspecto que ha negado la diputada que se produzca. La protección, según ella, “queda garantizada” en el convenio firmado con una docena de ayuntamientos del territorio y que tendrá vigencia hasta el año 2024.

Asimismo, el grupo Mixto-PP Bizkaia se ha interesado por la eliminación de un vertedero “incontrolado” en la carretera Berango-Unbe (BI-3733), entre los kilómetros 23 y 28. Tras realizar la Diputación una inspección a la zona el 10 de febrero, los técnicos constataron que el punto en donde se encontraron residuos sólidos correspondía al término municipal de Berango por lo que era este ayuntamiento el responsable de retirar los escombros y establecer las oportunas sanciones. Etxanbobe ha aprovechado para recordar las medidas “preventivas y correctivas” que la Diputación activa para evitar estos puntos sucios. Las primeras, mediante campañas de concienciación ciudadana y la disposición de una red de 23 garbigunes. Y las segundas, mediante un decreto de ayudas económicas para que los municipios eliminen vertidos ilegales.